



Organización  
de las Naciones Unidas  
para la Educación,  
la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza,  
Zientzia eta Kulturarako  
Nazio Batuen Erakundea



Munduko Hizkuntza Ondarearen  
UNESCO Katedra

Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico Mundial

[ 2020 urteko  
JARDUERA MEMORIA ]

## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena
2. Harremanak erakundeekin
3. 2020an bideratutako proiektuak
4. Katedrak antolatutako ikastaro eta jardunaldiak
5. Katedrakideek emandako ikastaroak
6. Katedrakideen hitzaldiak eta kongresuetan aurkeztutako komunikazioak
7. Katedrako bestelako jarduera batzuk
8. Katedraren presentzia hedabideetan
9. Katedrakideek jasotako sariak
10. Katedrakideen argitalpenak
  - 10.1. Liburuak
  - 10.2. Kapituluak
  - 10.3. Artikuluak

# 1. AURKEZPENA

---

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (MHOUK) Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta UNESCOren artean sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmena 2006 sinatu eta Katedrak 2007an eman zion hasiera bere ibilbideari Itziar Idiazabalen ardurapean. Katedraren sorrera UNESCO Etxeari zor zaio; erakunde horren gidaritzapean, UNESCO Parisek eskatuta, munduko hizkuntzei buruzko txostena (Martí et al., 2006<sup>1</sup>) burutu zen 1996 eta 2005 bitartean, ondoren hainbat hizkuntzatan itzuli zena. 1998an Eusko Jaurlaritzaren eta UNESCOren artean sinatutako memorandumari esker gauzatu ahal izan zen proiektu hori. Harrezkero, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak eta UNESCO Etxeak elkarlanean jarraitu izan dute, bereziki garapenerako proiektuetan.

2017an UPV/EHUren eta UNESCOren arteko hitzarmena berriztatu zen beste lau urtez eta Katedraren zeregina Hezkuntzaren alorrera ere atxikitzea onartu zuen UNESCOk. Horri esker, Katedrak jarraipena eman ahal izan dio munduko hizkuntzen egoerari buruzko azterketei, eta bereziki, modu monografikoagoan, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan egiten den lanari eta garapenerako hizkuntza lankidetzari. Horretaz gain, Katedraren borondatea da hezkuntza baloreak eta prestakuntza inklusibo eta justua sustatzea eta etengabeko ikaskuntza bultzatzea, 2030eko Garapen Iraunkorrerako 4. helburuari ekarpena egiteko, baina baita hizkuntzaren zeharkakotasuna eta garrantzia aldarrikatzeko Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) guztietan ere.

Katedraren helburua da, beraz, bertako eta kanpoko hizkuntza ondarea aztertu, deskribatu eta ezagutaraztea eta munduko hizkuntzen ondarea ezagutzera ematea. Horretarako, ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzen ditu, betiere, arreta berezia eskainita hizkuntza gutxituei, Euskal Herriko eta euskararen biziberritzearen ikuspegiak aintzat hartuta.

Katedra, gaur egun, arduradunak, teknikari batek, kide aktiboek, Batzorde Tekniko Iraunkorrek eta Aholku Batzordeak osatzen dute.

## Arduraduna

- Ines M<sup>a</sup> Garcia Azkoaga, Euskal Filologian Doktorea eta eleaniztasunean eta hizkuntzen irakaskuntzan aditua. 2018an hartu zuen Katedraren ardura UPV/EHUko errektoreak izendatuta.

## Teknikari-ikertzailea

- Maite Garcia Ruiz, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako doktoregaia eta soziolinguistikan ikertzailea. 2018an Katedran lanean hasitako kontratupeko ikertzailea.

## UPV/EHUko katedrakide aktiboak

- Ibon Manterola (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen jabekuntzan eta hizkuntzen didaktikan aditua.

---

<sup>1</sup> Martí Ambel, Félix; Ortega Etcheberry, Paul; Idiazabal Gorrotxategi, Itziar; Barreña Agirrebeitia, Andoni; Juaristi Larrinaga, Patxi; Junyent Figueras, Carme; Uranga Arakistain, Belén; Amorrortu Gómez, Estibaliz (2006). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

#### Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), ohorezko irakaslea-ikertzailea.
- Andoni Barreña (Garabide Elkarte), Euskal Filologian doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan doktorea eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzailea.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkarte), irakaslea eta hizkuntza eta biologia aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega Etcheverry (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan doktorea, besteak beste, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Beñat Garaio (UPV/EHU), hizkuntzalaritza eta soziolinguistikan ikertzailea eta ELEBILAB taldeko kidea.
- Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea), Soziolinguistikan doktorea, soziolinguistika irakaslea eta soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegia), Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.

#### Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi (UPV/EHU), Soziologia katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi (UPV/EHU), Soziolinguistika katedraduna.
- Maitena Etxebarria (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna.
- Patxi Goenaga (UPV/EHU), Euskal Filologia katedraduna.
- Nieves Fernandez Vicente, UNESCO Etxearen lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCO Etxearen zuzendaria.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakasle eta ikertzailea. Soziolinguistikan aditua.

## 2. HARREMANAK ERAKUNDEEKIN

---

Sortu zenetik, Katedra etengabe dihardu elkarlanean izaera ezberdinetako erakunderekin. Lankidetzaz horiek funtsezkoak dira proiektuak bideratzeko eta, besteak beste, babes ekonomikoa bermatzeko.

Gure proiektuei babes ekonomikoa ematen dietenak dira hurrengo hauek:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS);
- Azkue Fundazioa, non Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) patronatokoa kidea den, beste erakunde hauekin batera: Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Euskaltzaindia eta Deustuko Unibertsitatea;
- Elorriko Udala: 2019 berriztatu zen beste 4 urtez udal honekin dugun hitzarmena, lehenengo aldiz 2014an sinatu zena;

Beste erakunde batzuekiko harremana eta lankidetzaz ere ezinbestekoa da proiektuak eta egitasmoak aurrera eramateko. Aipatzekoak dira hurrengo hauek:

- UNESCO Etxea, 1991an sortu zen, eta gure Katedrari babes instituzionala ematen dio sortu zenetik (2007). UNESCO Etxearen asmoa UNESCO erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzea da. Egun 132 bazkide ditu, erakundearen gizarte-oinarria osatzen dutenak.
- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), bere izenak dioen bezala, bere baitan biltzen dituena Euskal Herrian dauden UNESCO izendapena daramaten askotariko erakundeak (ikastetxeak, fundazioak, katedrak...)
- Garabide Elkarteak, gobernu kanpoko erakundea 2013tik daramagu kolaborazioan Garabiderekiko hizkuntza kooperazio proiektutan. Cauca, Kolonbiako hizkuntza kooperazio proiektuarekin jarraitzen dugu gaur egun haiekin batera.
- Euskal Gorrak (Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioa), EAEko Gor helduen Elkarte guztien koordinatzaile eta ordezkari moduan jokatzen du eta euskal lurralde osoan pertsona gorrek oinarrizko zerbitzuak jaso ditzaten bermatzera bidean lan egiten du. 2020an sinatu da kolaborazio hitzarmena.
- Asociación Africanista Manuel Iradier, gobernu kanpoko erakundea. 2014 urtean sinatu zen kolaborazio hitzarmena.
- Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizen kokatuta dagoena eta euskararen zein hizkuntzaren aniztasunaren berri zabaltzeko lana egiten duena.
- UPV/EHUko UNESCO Katedrak:
  - Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedra
  - Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra
  - Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruz UNESCO Katedra
  - Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra
  - Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
- Ayuda en Acción, gobernu kanpoko erakundea: Erakunde honekiko harremanak 2018an hasi ziren Mexikoko tseltal komunitateak haiekin harremanetan jarri zirenean tseltal hizkuntza biziberritzeko. Ayuda en Acciónek MHOU Katedrarekin

jarri zen harremanetan eta orduz geroztik jarraitu dugu hizkuntza kooperazio egitasmoa lantzen.

Horretaz gain Katedrak harreman estua du Genevako Unibertsitateko hizkuntzen didaktikako adituekin eta Gales, Irlanda eta Frantziako hainbat aditurekin, lan egiten dutenak hezkuntza eleaniztunaren eta hizkuntza gutxituen inguruan.

### 3. 2020AN BIDERATUTAKO PROIEKTUAK

---

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak (MHOUK) honako proiektuak garatu ditu 2020 urtean zehar:

- **Hizkuntza lankidetzak Kolonbiako Caucan:** Covid-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, aurreikusita zeuden egitasmoak moldatu egin behar izan diren arren, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak Garabiderekin batera Kolonbiako Caucan duen lankidetzari eutsi dio, onlineko prestakuntza eskaintzen eta nasa yuwe ikasteko ikasmaterialak sortzeko laguntza ematen. Alde batetik, onlineko prestakuntza eskaintzeko egitarauaren diseinuan parte hartu eta bertan egokitutakoaren arabera hartu dute parte Katedrako kideek eskolak ematen. Ikastaroa bideratzeko Moodle plataforma erabili da eta bertan antolatu dira eskola teorikoak eta praktikoak, bertan jarritako materialen eta zereginen bidez eta online zuzenean eskaintako saioen bidez. Bestetik, aurreikusita zegoen A2 mailako nasa yuwe ikasteko ikasmaterialaren prestakuntzari eutsi zaio; lanak aurrera egin du nasatarren eta Katedrakideen elkarlanari esker.

- **Kolonbiako Caucan egindako hizkuntza lankidetzatik sortutako liburuxka:** 2018ko Adituaren Ekoizpen kulturalako moduloan ariketa modura abiatu eta 2019ko Caucako teknologikoan segida izan zuen liburuskak Garabide, Katedra eta Easo Politeknikoaren babesari esker bi argitalpen izan ditu 2020an; bat euskaraz (*Hizkuntza Indigenak. Ama Lurra zaintzen*) eta beste bat nasa yuwez. Liburuxken aurkezpena Easo Politaknikoan antolatu zen ekitaldi batean. Liburuxka hizkuntza lankidetzan tresna modura erabiltzeko diseinatu zen, eta konkretuki euskarazko bertsioak, euskal jendartean kultur eta hizkuntza aniztasuna, munduan egoteko modu desberdinak, eta kultura eta naturaren arteko harremana lantzeko euskarria izan nahi luke. (<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/liburuak>).

- **Garapen Iraunkorreko Helburuetan hizkuntza aintzat hartzeko aldarrikapena (17+1):** Katedrak lidergoa hartu du Euskal Herrian 2030 Agendan hizkuntza eta kultura aniztasuna txertatzeari dagokionez. EASO Politeknikoarekin batera "17+1" deituriko proiektua garatu dugu, eta 18. helburu baten aldarrikapenarekin (hizkuntza eta kultura aniztasuna) hizkuntzen presentzia eza salatu nahi izan dugu Nazio Batuetako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen 2030 Agendan. 2020 urtean erakusketa bideratu ezin izan den arren, ekimen honen oihartzunak ondorio positiboak ekartzen jarraitu du eta horien berri ematen jarraitu dugu gure sare-sozialetan zein webgunean.

- ***Linguistic Diversity, Minoritized Languages and Sustainable Development*** izenburuko liburuaren argitalpena: 2018an hasitako eta nazioarteko 16 adituren

ekarpenak biltzen dituen liburua da. Sarean argitaratu genuen 2019an eta mundu osoko 13 ikertzailearen ekarpenekin osatuta dago. Liburuaren lehenengo bertsio hau ingelesezko, gaztelaniazko eta frantsesezko lanekin osatuta dago eta 2020an lan osoa euskaratzen hasi gara argitalpena datorren urtean izango den arren.

**- Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtetik (IYIL2019) hamarkadara:**

2019ko ospakizunarekin bat egin eta hizkuntza indigenen eta gutxituen aldarrikapenari bildu ginen. UNESCOk hartu zuen ospakizun horren kudeaketaren ardura eta gure Katedrak ekimen horrekin bat egin zuen; ekimenaren logo ofiziala eskuratu eta animazio digital bat sortu genuen aldarrikapena munduan zehar hizkuntza ezberdinetan zabaltzeko, besteak beste, IYIL2019 orri ofizialaren bidez. 2020an ekimen horri buruzko txostena eta galdetegia bete dugu eta Katedrako arduraduna den Ines Garcia Azkoaga UNESCOren IYIL2019ko ebaluaziorako egn diren inkestak erantzun eta egindako elkarrizketetan an parte-hartu du.

**- Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean (otsailak 21) hezkuntza eleanitza eta hizkuntza gutxituen presentzia eskolan aldarrikatzeko animazio digitala:**

Hizkuntza aniztasunari lotutako proiektu bat zela eta, Arratiako BHIko ikasle batzuen lanak baliatuta, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunerako bideo berri bat argitaratu genuen.

**- Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza aniztasuna proiektua. Azkue Fundazioa:**

Azkue Fundazioaren laguntzari esker, proiektu honen helburua munduko eta Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari buruzko informazioa zabaltzea da. Aurtengo helburua Wikipediarekin eta interneten euskarazko eduki gehiago sortzearekin lotuta egon da. 2020an euskal Wikipediako hizkuntza gutxiagotuei buruzko 10 sarrera sortu edota osatu ditugu. Hauek dira aukeratutako hizkuntzak: wolofa, kitxua, nasa yuwea, enberera, shipibo-konibo, bariba, tseltala, zeinu hizkuntza, amazigera eta tongera.

**- Irakasleen prestakuntza Europako hizkuntza gutxituetako ahozko erabilerak irakasteko:**

2018tik harremanetan egon da Katedra Irlanda, Gales, Eskozia eta Iparraldeko unibertsitatetako hainbat irakasle-ikertzaileekin Europako hizkuntza gutxituen ahozko erabilerak irakasteko balioko duen irakasleak trebatzeko proiektu bat diseinatzeke asmotan. 2018-2019 ikasturtean zehar harremanetan jarri ginen eta haiekin partekatu ditugu hizkuntza gutxituen ahozko erabileraren gainean ditugun gure kezka eta ahozotasunaren irakaskuntzari lotuta ikusten ditugun premiak. Hizkuntza gutxituen erabilera ez dago bakarrik eskolaren menpe, kanpoko eragileak ere garrantzi handia baitute horretarako. Hala eta guztiz ere, pentsatzen dugu eskolak bitarteko didaktiko egokiak sortu behar dituela gaur egun dituen erronkei aurre egiteko, besteak beste, eta guri dagokigunez, eskola eleaniztun baten hizkuntza gutxituaren ahozko erabilerak lantzeko behar direnak eta hala, hizkuntza gutxituaren erabileraren indartzean eragin ahal izateko. Baina bitaratekoa sortu ez ezik, irakasleak ere trebatu egin behar dira bitarteko horien erabileran. 2020an Erasmus Plus deialdian hartu dugu parte eta bertan aurkeztu dugu proiektua. Katedrak aintzindaritasuna hartu duen egitasmo horretan lurralde hauek izan gara partaide: Gales (Bangor University), Irlanda (Dublin City University - DCU), Eskozia (The University of Edinburgh), Iparraldea (Université Bordeaux Montaigne) eta Euskal Herriko Autonomia Erdikdegoa (Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU - eta Deustuko Unibertsitateari atxikita dagoen Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola - BAM); horietaz gain, Soziolinguistika Klusterraren eta Elhuyarren lankidetzak ere izan dugu. Urtean zehar gure proiektua bideratzeko hartu

emanak izan dira adituen artean. Helburu nagusia izan da gure hizkuntza gutxituen ahozko erabileraren irakaskuntza beharrei erantzungo dien irakasleen prestakuntza egitarau bat sortzeko ekimena abiatzea, ahozko hizkuntzaren lanketaren premiei bideratuta. Ekimen horri esker lurraldeen arteko harreman sarea ehuntzen eta sendotzen hasi gara.

- **Hizkuntzaren irakaskuntza, Jabekuntza, eta Erabilerak. Euskara, erdara, elebitasuna eta eleaniztasuna (IT983-16) (2016-2021):**

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen ikertalde egonkortu honetan katedrako hainbat kidek hartzen dute parte, katedraren beste ardatz nagusia den hezkuntza eleanitza eta eleaniztasunaren inguruko ikerketa egiten eta ezagutzaren zabalkundean.

#### 4. KATEDRAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA JARDUNALDIAK

---

- **“Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra”** ikastaroa, irailaren 16 eta 17an, Donostian. UPV/EHUko Udako Ikastaroak.

Ikastaro honen helburua hizkuntza indigenak eta garapen iraunkorraren arteko lotura eta garrantzia azpimarratzea izan zen. Horretarako hainbat adituren ekarpenekin kontatu ahal izan genuen: Itziar Idiazabal, Gabriel Delmon Djomeni (Kamerun), Patxi Baztarrika, Ane Ortega eta Jon Sarasua. Aldibereko itzulpena izan zen: euskara, ingelesa, gaztelania eta zeinu hizkuntza, eta 35 partaide matrikulatu ziren, 17 presentzial eta 18 online.

#### 5. KATEDRAKIDEEK EMANDAKO IKASTAROAK

---

Andoni Barreña. Estrategias para el desarrollo del corpus. 2 orduko saioa. Garabide Elkartea. Ikastaroa: Curso online “Bases de la revitalización lingüística”.

Andoni Barreña: Transmisión de la lengua en 3 ámbitos: familia, educación y comunidad. 7 orduko saioa. Garabide Elkartea. Ikastaroa: Curso online “Bases de la revitalización lingüística”.

Ane Ortega & Arkaitz Zarraga: Módulo “Enseñanza de adultos”. Garabide Elkartea. Ikastaroa: Curso online “Bases de la revitalización lingüística”.

Ibon Manterola: “Hizkuntza ukipena” Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

Ibon Manterola: “Hizkuntzalaritza aplikatuaren oinarriak I: hizkuntza plangintza eta soziolinguistika” ikastaroa. Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

Ibon Manterola: “Social-Discursive Analysis and Language Didactics”. Master Ofiziala: Language Acquisition in Multilingual Contexts. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

Ines Garcia-Azkoaga eta Leire Diaz de Gereñu: “Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak II: Eleaniztasuna eta Irakaskuntza”. UPV/EHUko Master Ofiziala: “Euskal



Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterra". 2019/2020 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

Itziar Idiazabal: "Malas lenguas: activando falantes no s.XXI", jornadas sobre normalización lingüística que impulsa la Diputación de A Coruña: Mintzaldia "La escuela y la revitalización de las lenguas amenazadas" A Coruña, 2020/11/12.

Itziar Idiazabal: EHUko Uda Ikastaroa 2020 (G09-20) Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra, Hitzaldia: "Linguistic diversity, minority languages and sustainable development" "Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxiagotuak eta garapen iraunkorra" liburuaren inguruan Donostia, 2020/ 09/ 16-17.

Itziar Idiazabal: EHUko Uda Ikastaroa 2020 (X28-20) Unibertsitatea eta Iraunkortasuna: eginkizun handi baterako bidaiari-lagunak, Hitzaldia: " 17+1 Garapen Iraunkorrerako Helburua. Hizkuntza eta kultura aniztasunaren ekarpena garapen iraunkorrari / 17+1 Objetivo de Desarrollo Sostenible. Aportación de la diversidad lingüística y cultural al desarrollo sostenible. "On line 2020/07/29-30.

Leire Diaz de Gereñu: "Hizkuntzaren Bariazioa eta Barietateak". UPV/EHUko Master Ofiziala: "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra". 2019/2020 Ikasturtea. Iraupena: 3 ECTS, 30 ordu.

Maite Garcia Ruiz: "Lenguas y Desarrollo Sostenible". UPV/EHUko Ingurumen eta iraunkortasunean berezko Masterra. 2020-2021 ikasturtea, Leioa 2020/11/03. Iraupena: 4 ordu.

Mikel Mendizabal: Kolonbiako Nasa herriaren diplomaturan. On-Line bidez eta Saddy Duvan Cometarekin batera Kwe'sx fxi'znxis eçte Mhiiwä'-kultur ekoizpenaren moduluaren dinamizazioa.

- Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa: Katedrako kide den Beñat Garaio, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatzen duen Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloan koordinatzaile gisa aritu da. Ekimen honetan hizkuntza gutxitu bateko hiztun edo aditu bat gonbidatzen da mundu zabalean dauden hizkuntza gutxituetako egoera Euskal Herrira, eta batik bat Gasteizera hurbiltzeko asmotan. Ziklo honen hainbat hitzaldi atzeratu behar izan ziren COVID-19-aren eragina zela eta.

## 6. KATEDRAKIDEEN HITZALDIK ETA KONGRESUETAN AURKEZTUTAKO

### KOMUNIKAZIOAK

---

Aldekoa, A., Manterola, I. & Idiazabal, I. (2020). "The development of Basque, English and Spanish oral expository skills by means of a trilingual didactic sequence", SEDLL 2019, Iruña, 25-27, noviembre.

Aldekoa, A., Manterola, I. & Idiazabal, I. (2020). "Vers l'intégration de langues minorisées dans des dispositifs didactiques visant l'apprentissage des compétences plurilingues", transmettre les langues : pourquoi et comment ?, Corti, Università di Corsica, online 2 et 3 octobre 2020.

Diaz de Gereñu, L. & Bengoetxea, O. (2020). "Le multilinguisme et le défi des

langues minoritaires : une expérience de formation des enseignants pour l'enseignement de l'oral.". Transmettre les langues : Pourquoi et comment ?. Universidad de Pasquale-Paoli. Corti, università di corsica, 2 et 3 octobre 2020.

Diaz de Gereñu, L. (2020). " Berritzegunetako normalizazio teknikarien formakuntza saioa ". UEUko Ulibarri programarako formakuntza. Berritzegune. Online.

Garaio, B. (2020). "L'escola basca: de l'activisme a la institucionalització i volta a l'activisme", Universitat de Vic-en emandako hitzaldia, martxoak 11n.

Garaio, B. (2020). "EuskarAbentura, gazteen aisialdiko hizkuntza ohituretan eragiten", Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren baitan emandako hitzaldia, Eskoriatza: urriak 28.

Garcia, I. & Torralba, C. (2020). "Traducción e interpretación: una aproximación a las necesidades formativas de los profesionales", XXI Congreso Internacional de la SedII", SedII 2019, Universidad Pública De Navarra, Iruña, 25-27, noviembre.

Idiazabal, I. (2020). "Malas lenguas: activando falantes no s.XXI", jornadas sobre normalización lingüística que impulsa la Diputación de A Coruña: Mintzaldia "La escuela y la revitalización de las lenguas amenazadas" A Coruña, 2020/11/12.

Idiazabal, I. (2020). Hitzaldia: "17+1 Garapen Iraunkorrerako Helburua. Hizkuntza eta kultura aniztasunaren ekarpena garapen iraunkorrari / 17+1 Objetivo de Desarrollo Sostenible. Aportación de la diversidad lingüística y cultural al desarrollo sostenible", UPV/EHUko Uda Ikastaroak (X28-20) Unibertitate eta Iraunkortasuna: eginkizun handi baterako bidaiari-lagunak, online 2020/06/29-30. <https://www.uik.eus/eu/curso-online-en-directo-universidad-y-sostenibilidad-companeras-de-viaje-para-una-gran-mision>

Idiazabal, I. (2020). Hitzaldia: "Linguistic diversity, minority languages and sustainable development" "Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxiagotuen eta garapen iraunkorra" liburuaren inguruan", UPV/EHUko Uda Ikastaroak (G09-20) Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra, Donostia, 2020/09/16-17.

Mendizabal, M. (2020). Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen liburuskaren euskarazko argitalpenaren aurkezpena.

Mendizabal, M. (2020). NASAWE'SX YUWEJUY UMA KIWE NWE'WNA, Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen liburuskaren nasa yuwezko argitalpenaren aurkezpena.

Munarriz, A., Diaz de Gereñu, L. & Manterola, I. (2020). "Propuesta de transposición didáctica del género de la reseña científica para el desarrollo de las capacidades de escritura en alumnado universitario". XXI. Congreso Internacional de la SEDLL. Nafarroako unibertitate publikoa. Iruña, 25-27, noviembre.

Ortega, A. & Zarraga, A. "Nasa yuwe". Hitz adina mintzo Jardunaldiak. Oihaneder Fundazioa, Vitoria-Gasteiz, 2020 / 12/ 13.

Ortega, A. "Nasa yuwe: hizkuntza biziberritzea eta garapena". Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra. EHUko Uda Ikastaroa. Donostia, 2020 / 09/ 17-18.

## 7. KATEDRAKO BESTELAKO JARDUERA BATZUK

---

- Otsailaren 11n: Hizkuntza anistasunari buruzko tailerrak Arratiako BHLan.
- Uztailaren 15ean: Euskal Herriko UNESCO Sareko (EHUS) kideen bilera.
- Urriaren 22an: 2020ko **Enpresarean Azokan** parte hartzea. Solasaldia: Hizkuntza aniztasuna eta garapen iraunkor globala. **Bai Euskarari Elkartea**  
<https://enpresarean.eus/info/ikusi/enpresarean-azoka/enpresarean-azoka-2020>
- Azaroaren 19an: 2020ko **Tokiko Elkartasunari buruzko Europako Jardunaldian** parte-hartzea. Gaia: Garapen jasangarria lortzeko kultura-jasangarritasunari buruzko eztabaida eta Kultura, 2030eko Agendan aurrera egiteko giltzarri gisa. **Getxoko Udala**. <https://www.getxo.eus/eu/servicios/comunicacion/notas-prensa/2490>
- Abenduaren 1ean: "*Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen*" liburuxkaren aurkezpen ekitaldia EASO Politeknikoan.

## 8. KATEDRAREN PRESENTZIA HEDABIDEETAN

---

Urtean zehar Katedrarekin lotutako gaien jardueren berri eman dugu hedabide ezberdinen bidez (ohikoak zein sare sozialekoak).

Noiz	Nor / Zer	Zer / Gaia	Non
2020-02-21	Itziar Idiazabal	Elkarrizketa: Ama hizkuntzearen eguna	Bizkaia Irratia
2020-02-21	Ines Garcia-Azkoaga	Ama hizkuntzearen eguna	<a href="#">EHU campusa</a>
2020-02-21	Beñat Garaio	Higa 3	<a href="#">Noticias de Alava</a>
2020-03-26	Jurgen Meisel	Elkarrizketa: Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu ikastaroa	<a href="#">Argia</a>
2020-05-25	Beñat Garaio	Higa 3 (Covid-19)	<a href="#">Noticias de Alava</a>
2020-06-07	Katedra	Udako ikastaroaren berri	<a href="#">Sustatu</a>
2020-07	Ines Garcia-Azkoaga elkarrizketa	Hizkuntza osasun arloan	<a href="#">Osatuberri</a>
2020-07-20	Itziar Idiazabal elkarrizketa	Hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea eta garapen iraunkorra uda ikastaroaren inguruan	Euskadi Irratia
2020-09-26	Ines Garcia-Azkoaga	Elkarrizketa: Europako Hizkuntzen Eguna. Erreportajea.	Radio Euskadi
2020-09-26	Beñat Garaio	Elkarrizketa: Europako Hizkuntzen Eguna. Erreportajea.	<a href="#">Radio Euskadi</a>
2020-10-06	Beñat Garaio	Elkarrizketa: Hitz Adina Mintzo	<a href="#">Radio Vitoria</a>
2020-10-14	Jone Goirigolzarri	Elkarrizketa: Euskaldun... zaharrak berri?	<a href="#">Berria</a>
2020-11-16	EASO Politeknikoa	17+1 Garapen iraunkorrerako helburuak Easo Politeknikoa	<a href="#">YouTube</a>
2020-11-28	Ane Ortega	Euskaldun mota denak	<a href="#">Berria</a>

		barneratu	
2020-12-03	Ane Ortega	Elkarrizketa: Euskararen Nazioarteko Eguna: Euskal hiztun berriak	Bizkaia Irratia (Goizeko Izarretan)
2020-12-04	"Hizkuntza Indigenak. Ama Lurra Zaintzen"	Liburuskaren aurkezpena	<a href="#">Argia</a>
2020-12-07	"Hizkuntza Indigenak. Ama Lurra Zaintzen"	Liburuskaren aurkezpena	<a href="#">EITB</a>
2020-12-15	Mikel Mendizabal	Elkarrizketa: "Mikel Mendizabal. Revitalizar la lengua de los pueblos silenciados."	<a href="#">EITB</a> El blog de Roge
2020-12-16	Mikel Mendizabal	"Revitalizar de las lenguas silenciadas. 10 meses confinados en Bariloche"	<a href="#">EITB</a> La casa de la palabra
2020-12-16	Arkaitz Zarraga	Elkarrizketa: «Hizkuntza ezinbestekoa da nasek bizirik irauteko»	<a href="#">Berria</a>

**Agerpenak sare sozialetan:** 2020an egindako ekimen guztiak, parte-hartutako ekimenak barne, katedrako sare sozialetan hedatu dira. Twitterren (@UNESCOmho) zein Facebooken (@HizkuntzenUnescoKatedra) eta katedrako webgunearen (www.ehu.eus/mho-unesco-katedra) bidez joan gara eginkizun guztien berri ematen, hala nola hizkuntza gutxituei buruzko berriak zabaltzen. Horrez gain, aurreko atalean aipatutako lankidetzako erakundeen berri emateko erabili izan ditugu sare sozial horiek.

## 9. KATEDRAKIDEEK JASOTAKO SARIAK

---

**Ane Ortega eta Arkaitz Zarragaren** Caucan egindako lanetik sortutako nasa yuwe oinarriko maila liburuaren argitalpenak *"NYAFX FXIDX"* Kolonbiako Kultura Ministerioaren aitortzea jaso zuen: "Reconocimiento al fortalecimiento de la diversidad lingüística colombiana" (Ministerio de Cultura del Gobierno colombiano, res. 1959 del 05 de octubre de 2020).

**Ainhoa Morón eta Beñat Garaio:** TXILLARDEGI-HAUSNARTU SOZIOLINGUISTIKA SARIEN (2020) XIII. edizioko hirugarren saria. Aurkeztutako lana: *Tokiko komunikabideak hizkuntza biziberritzeko eragile: Ipar Euskal Herriko eta Yukatan penintsulako hiru kasu-azterketa apreziatibo.*

## 10. KATEDRAKIDEEEN ARGITALPENAK

---

### 10.1. LIBURUAK

Diaz de Gereñu, L.; Garcia-Azkoaga, I.M.; Manterola, I. (arg.) (argitaratze prozesuan). Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. UEU & UPV/EHU.

Barreña, A. & Mendizabal, M. (ed.) (2020). Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen liburuskaren euskarazko argitalpena

Barreña, A. & Mendizabal, M. (ed.) (2020). *NASAWE'SX YUWEJUY UMA KIWE NWE'WNA*, Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen liburuskaren Nasa Yuwezko argitalpena

## 10.2. KAPITULUAK LIBURUETAN

Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. (2020). "Bilbo Handiko unibertsitate-ikasle euskal hiztun berriak muda prozesuan ahaleginetan: ekintza-ikerketaren baten behin behineko emaitzak" [Action-research to study muda processes among University new speakers of Basque from the Bilbao Metropolitan area: preliminary results]. In Santazilia, E., Krajewska, D., Zuloaga, E. & Ariztimuño, B. (arg.). *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpak berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*. 47-62 orr. Iruña: Nafarroako Gobernua. ISBN: 978-84-235-3561-3.

Diaz de Gereñu, L., Idiazabal, I. & Larringan, L. M. (2020) Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan. In Santazilia, E. et al. (arg./eds.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan*. 195-208. ISBN: 978-84-235-3561-3

Garaio, B. (2020). "¿Una nación de naciones, un proyecto común multilingüe? El españolismo lingüístico frente a la aparición de los idiomas minorizados en la pantalla pública", in AJL (edk). *Lingüística prospectiva: tendencias actuales en estudios de la lengua entre jóvenes investigadores*, Sevilla: Asociación Jóvenes Lingüistas, 501-512 orr.

Garcia-Azkoaga, I.M. (2020). Secuencias didácticas y géneros textuales en el aprendizaje de la lengua de especialidad. In Cecylia Tator, Marek Baran, R. Sergio Balches Arenas (eds.). *Un mundo cambiante en la enseñanza de la lengua y la literatura contemporáneas*. Katowice: Wydawnictwo Uniwersytetu Śląskiego, 38-47.

Garcia-Azkoaga, I.M.; Bengoetxea, O.; Zabala, J. (2020). Ahozko euskararen erabilera eskolan. Gako zenbait irakasleen prestakuntzarako, in E. Santazilia, D. Krajewska & E. Zuloaga (arg.): *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpak berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*. Iruña: Nafarroako Gobernua. (ISBN: 978-84-235-3561-3).

Manterola, I. (2020). Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala? In D. Krajewska, E. Santazilia & E. Zuloaga (Ed.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpak berriak euskararen ikerketari. Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*. Iruña: Nafarroako Gobernua. 405-420. 978-84-235-3561-3.

Manterola, I. (2020). Euskararen komunitatearen garapena e5 egitasmoaren bidez. In Artiagoitia, X., Camino, I. Epelde, I. & Ulibarri, K. (Ed.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazo irakaslearen omenez*. Bilbo: UPV/EHU. 497-509. ISBN: 978-84-1319-266-6.

Ortega, A. & Zarraga, A. (argitaratze prozesuan). "Euskal-nasa kooperazioa: helduen eskolentarako metodologia eraginkorren bila, atazetan oinarritutako irakaskuntzaren bidetik". In Diaz de Gereñu, L.; Manterola, I. & Garcia-Azkoaga, I. M. (arg.). *Euskara oinarri, eleaniztasuna helburu*. Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco EHU/UPV.

Uranga, B. & Mendizabal, M. (argitaratze prozesuan). Munduko hizkuntza-

aniztasunetik euskarara; ekologistatik begirada. Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu.

### 10.3. ARTIKULUAK ALDIZKARIETAN

Aldekoa, A., Manterola, I. & Idiazabal, I. (2020). A trilingual teaching sequence for oral presentation skills in Basque, Spanish and English. *The Language Learning Journal*, Volume 48, 2020 - Issue 3: Endangered and minority language pedagogy, 259-271. <https://doi.org/10.1080/09571736.2020.1741666>

García-Azkoaga, I.M (argitaratze prozesuan). Los derechos lingüísticos y la educación en lenguas indígenas en la encrucijada del desarrollo sostenible, *Revista de la Facultad de Derecho y Ciencias Políticas - UNSAAC nº 12: monográfico "Derechos lingüísticos y Políticas Públicas"* (ISSN 2519-7592)

García-Azkoaga, I.M. (2020). La receta de cocina, un recurso multidimensional para la enseñanza-aprendizaje de las lenguas, *Calidoscopio*, v. 18, n. 3, 646-664. (doi: 10.4013/cali.v18i3.20587) (ISSN 2177-6202).

García-Azkoaga, I.M.; García-Ruiz, M. (2020). The Basque language in education in Spain. *Mercator*. [ [https://www.mercator-research.eu/fileadmin/mercator/documents/regional\\_dossiers/basque\\_in\\_spain\\_3rd\\_ed.pdf](https://www.mercator-research.eu/fileadmin/mercator/documents/regional_dossiers/basque_in_spain_3rd_ed.pdf).]

Larrañaga, J., Mendizabal, M. & Barreña, A. (2020). "Nasak eta euskaldunak elkarri begira". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 114.

Manterola, I., Díaz De Gereñu, L. & Almgren, M. (2020). Grammar and text production in secondary education teaching materials of Basque, Spanish and English: reflections on an integrated didactics of languages. *Didacticae: Revista de Investigación en Didácticas Específicas*, 8, 26-39. DOI: 10.1344/did.2020.8.26-39

Zarraga, A. & Ortega, A. (2020). "Euskal-nasa kooperazioa helduen irakaskuntzaren ardatzean". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 114, 73-93.